



BESTE BI LIBURU PUBLIKATU DITU JUAN SAN MARTINEK



zaguna da oso Juan San Martin gure irakurleentzat. Denbora asko darama aldizkarian bere kolaborazioak eskainiz. Hortaz gain, hainbat lan

egina da euskararen inguruan, eta bizitza osoan publikazio askotan ibili da bere laguntza eskuzabalki eskainiz.

1922 urtean jaio zen Eibar-en, eta ongi dakigunez gaur egun Hondarribian bizi da, duela urte mordo bat etorri bait zen gure artera. Ez gara hasiko bere bizitzan eginiko kultur arloko lan guztiak aipatzen, ez bait genuke amaituko. Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da datu batzuk ematea euskaltzale honen bizitzari buruz.

1957an, teknika hitzen bilketagatik euskaltzain urgazle izendatu zuten. Hortaz gain, 1964 geroztik, euskaltzain osoa da. 1966-1978 urteen bitartean Euskaltzaindiako idazkari lanetan ibili zen. 1989 urtean Eusko Legebiltzarreko Lehen Ararteko izendatu zuten. Duela hiru bat urte kargu hori utzi zuela San Martin-ek.

Publikatu berria den liburu batean esaten den modura, berrogeita hamar eta hirurogeiko hamarkadetan zehar garatu zituen ekintzengatik egiten zaigu ezaguna. Lurralde osoan hitzaldi, ikastaro eta hizketaldi ugari eskaini zituen. Joxe Migel Barandiaran, Julio Caro Baroja, Koldo Mitxelena edo Luis Villasante bezalako izenekin egon izan da gogor lanean. 75 urtekin hor diardu oraindik ere lanean eibartar idazle handi honek.

«Giro Gori» izeneko poesia liburu argitaratzen duen lehena da. Bertan, «Otsalar» ezizenez 1954-1977 bitartean idatzi zituen poemak biltzen dira. Euskaraz eta gaztelaniaz idatzita dago, erdarazko itzulpenak Felipe Juaristik egin dituelarik. Poesien lagun den edonork irakurri beharreko liburu da.

Publikatu berria den bigarren liburu, «Euskararen ostarteak» da. Berak dioen modura, «euskararen argi eta ilunaldiak ditu saioaren oinarri». Hiru atalek osatzen dute liburu, gure hizkuntza delarik denen erdigune. Afirmazioak frogatu nahian, agiri asko agertzen ditu idazleak, lan handiaren ondorioa dela argi ikusten delarik.

Argitaratutako bi liburu hauez gain, beste hirugarren batean dabil lanean Juan San Martin. Azken hau, hondarribiarrei zuzenki dagokigun gai bati buruzkoa da, Kale Nagusiko Elizari buruzko azterketa bat egiten bait du. Parrokiaren azterketa arkitektura eta artean banatu nahi izan du, duela hiru urte hasi zuen ikerketa lan handi bat delarik. Diputazioak publikatuko dion lana da, eta baliteke uda parterako gure artean edukitzea.

